

ANTZERKIA • Argentinako krisia hizpide Avignongon jaialdian

2

Periferico de Objetos 'El suicidio' lanak ikusleen txaloak jaso ditu

Amagoia Iban

Avignongo jaialdia dela-eta Zeles-tinarren elizan jarritako oholtzan, Guillermo Arengo, Alejandra Cerriani, Laura Valencia, Julieta Vallina eta Christian Bouillette. Gorputzak eta bozak dantza bitxi batean nahasten dituzte. «Gure lan ildo gertuago dago dantzatik antzerki narraitibotik baino», dio *El suicidio* obra taularatu duen Periferico de Objetos konpainiako arduradunetako batek, Fernando Veronesek. Horregatik erabiltzen omen dituzte argentinarrak hauek arte eszenikoetako aukera guztiak. *El suicidio* proiektua apokrifotasun kontzeptuaren inguruko lan sorta bateko lehena dela dio Veronesek, «egia moduan egia ez den edozein gauza aurkezteko hautua azaltzeko. Suizidioaren gaiak horretan sakontzeko aukera ematen zigun». Heriotzari buruzko galderak egitea pertsonaren parterik ilunenetan sakontzea dela pentsatu zuten, «eta jendeak etxean izandako suizidio kasuak estali egiten dituzenez, hori lur emankorra genuela pentsatu genuen».

Eta suizidioa espazio-denbora zehatz batean gauzatzen den ekintza bat da Veroneseren ustez. «Sentipenez beteriko ekintza bat da, gogorra, beste norbaiti eskainia askotan. Gutxieneko prestaketa eta hausnarketa eskatzen ditu, eta ekintza sozial eta bakarkakoa da aldi berean. Ez du errepikapenik onartzen. Ikus daitekeenez, suizi-

Argentinako krisia taularatu dute Avignonen Periferico de Objetos konpainiakoek *El suicidio* lanarekin. Lan horretan, Argentina hiltegi erraldoi bat da.



Haragitarako

dioari buruz esandako guztia antzerkiaren gainean esan daiteke».

El suicidio obran, aldiro, maskara joko bat jokatzeko dute aktoreek. Hiru moztu dituzte aukeran: ardiarena, behorrena edo behiarena. Hainbeste okel esportatu duen Argentina dakarte gogorra. Eta hiltegi

F. Veronese (antzerkilaria)

• «Abeltzain herri bat izatetik hiltegi erraldoi bat izatera pasa gara»

baten maketa erakusten duten bi-deo irudiak ikus daitezke obran zehar. Testu bat irudion lagungarri: «Behiek, borrak akabatuko dituen tokirako ilaran aurrera egiten dutenean, heriotzarantz doazela sumatzen dute, baina horrek ez ditu geldiarazten». Behiak baduela suizida puntu bat, alegia, pertsonak izan dezaketen bezala. Eta, gainera, Argentinaren ikono ere badela. Krisialdia lehertu zenean, ikono hori hamaika puska eginda utzi zuten argentinarrak, aziendek beteriko kamioietatik abe-

reak ostean. «Jendea harrapatu berri zuen behia kale erdian aitzoz zaitzen erakutsi digu telebistak, baina hori behia-ikonoaren esanahi gehigarri bat besterik ez da. 60en hasiera arte, Argentina herrialde garatua zen, Latinoamerikako heziarena eta klase ertain indartsuena-ekin. Gaur egun, biztanleen erdia txiropa da; abeltzain herri bat izatetik hiltegi erraldoi bat izatera pasa zaigu».

Horrela indartu du errealtateak Periferico de Objetos taldekoek euren herrikideak lehertu aurretik martxan jarria zuten proiektua. Izan ere, krisialdia gure albistegietan agertu baino askoz lehenago ikusi zuten konpainia honetako kideek. «70etako diktadura garaian sartzea onartu izanak herriaren espiritu demokratikoa suizidatu zuen. Baina Argentinakoa bezalako suizidio kolektibo bat besteren utziketarekin bakarrik uler daiteke. Pertsonekin, nazioekin gertatzen den gauza bera gertatzen da».


Ikusleen onespena

Aurtengoa ez da Periferico de Objetos konpainia Avignonen izan den lehen aldia. Duela hiru urte, hain zuzen ere, euren lanaren inguruko atzera begirakoa eskaini zuten jaialdiko antolatzaileek hala eskatuta. Izan ere, 1989an *Errege Ubu* lana taularatzeko Buenos Airesen Ana Alvarado, Emilio Garcia Webhi eta Daniel Veronese batu zirenetik, taldeak lan ugari estreinatu ditu. Samuel Becketten omenez sorturiko *Variaciones sobre B...* estreinatu zuten 1991n. *El hombre de arena*, *Cámara Gesell* eta *Máquina Hamlet* ondoren etorri ziren. Azken obra horretan, Dieter Welke dramaturgo alemaniarrek hartu zuten parte eta hamaika herrialdetan erakutsi zuten. 1996an, *Circoneiro* estreinatu zuten. 1998an, Bruselako Kunsten Jaialdiaren babesia izan zuten *Zooedipus* ekoizteko, eta jaialdi beraren enkarguz mamitu zuten duela bi urte *M.M.B. Monteverdi Método Bélico* ikuskaria. *El suicidio* ekoizten, Alemaniako Theater der Welt eta Hebbel Theater, Avignongo Jaialdia, Holland Festibala eta Argentinako Proteatro izan dituzte laguntzaile.

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkaria

AURKIBIDEA

gogoa



II-1 2002ko Apirila

Itzulpena

• Bertrand Russell: *Denotatzeaz*

Zabal-zehatz begiratzuz

• Guadalupe Lopetegui: *Gramatika eta Erretorika Grezia Klasikoan*
• Patricia Insua, Jorge Grijalvo eta Pello Huizi: *Hizkuntzaren nahasteak eskizofrenian: Ehun urteko ikerlanak*

Artikuluak

• Mixel Aumague: *Euskal "genitiboen" semantikanantz meronomien ildotik*
• Fernando Migura: *Identitatea, iraunkortasuna eta aldaketaren bateraezintasunaz*

Liburuaren kritikak

Aurkezpen laburrak

Berriak

Kongresu, jardunaldi eta ikastaroak

Harpidetzatutako hau da telefonoa:
943 01 74 51
e-maila: ilbarjui@sc.ehu.es

**ALE
BERRIA**

**PAMIELA ARGITALETXEAK,
KULTURAREN ALDEKO
EUSKAL FUNDAZIOAREN
BABESAREKIN**

**JUAN ZELAIA
II. SAI AKERA SARIA**

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gaii buruzko saiakerak edota eritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria 6.000 eurotako da.

Lanak, Pamiela etxea (Juan Zelaia saria), Agustindarren industrialdea - Soltxate. G kalea - 31013 IRUNEA helbidera bidali beharko dira, idatziz, abuztuaren 31a baino lehenago.

Tel.: 948 32 65 35
e-mail: soltxate@pamiela.net
Aravak: www.pamiela.net

